

Vascuencearen legea Nafarroa Garaian*

Sagrario Aleman

Proposamen honek aldaketa bakarra irakaskuntzan sartzen du, ez da ordea, diskriminazioa deusezten, arlo horretan berean ere, bi eskualde izanen bailirateke. Euskara ofiziala nafararren %11a bizi den tokian besterik ez da izanen. Zonifikazioak lehengoan dirau, beraz, esan liteke aldaketak ez dakarrela aldaketarik.

The new proposal to revise the Law about the Basque Language in Navarre introduces a change, just in education, but not even in that field is discrimination excluded, since there would be two regions. Only where the 11% of the people from Navarre live is the Basque language official. Distribution of regions remains the same. Therefore, we could say that this change doesn't really bring any change.

* Erredakzio Kontseiluaren oharra: artikulua hau Vascuencearen Legearen aldaketa proposamenari nafar parlamentuak ezezkua eman aurretik idatzita dago. Aldizkariaren hitzaurrean adierazten den bezala, izan dugun zenbait arazoren ondorioz berandu atera da 12. zenbaki hau. Hala ere, artikulua pixka bat zaharkitua gelditu den arren, interesgarria iruditu zaigu bere horretan argitaratzea.

*«"Euskara guztio-
na eta guztiontzat"
kanpaina, zonifika-
zioaren kontra eta
nafar guztien eskubi-
deak bermatuko
zituen legearen alde
sortu zen, Nafarroan
euskara ofiziala
aldarrikatuz.»*

Legeak Foru Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikulua du guraso eta hau, aldi berean, espainiar Konstituzioaren umea dugu. Bata txarra bazen hurrengo okerrago eta hirugarrena ezin okerrago. 1978, 1982, 1986. Oren guztiek pertsona kolpatzen, azkenekoak hiltzen!

Aurrerago ere aipatuko dugunez, derragun zer dion 9. artikulua horrek: "1. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala. 2. Euskara ere ofiziala izanen da Foru lege batek eskualde horiek zehaztu,..."

1986ko Abenduan onartu zen legeak izan zuen aurreproiektu-turik. Honetan, batetik, eskualde euskalduna, orduan "Zona de predominio vasco" deitua -ez dut uste inoiz euskaraz eman zutenik- gaurkoa baino tikiagoa zen lurraldez, gure ibarra adibidez, Imotz, eremu horretatik at zegoen. Bestetik bi eremu edo zati egiten ziren Nafarroa Garaian, arestian aipatu eremua batean eta gainerako guztia bestean.

Aurretik argi zuten Gobernuak euskalgintzan ari ziren talde eta pertsona guztiak, bai alderdi nazionalistek ere, zonifikazioaren kontra zirela. Eta uste izan zuten hasieran aurreproiektu kaxkar hori ezagutzera eman eta ondoren, hori bera zenbait "Hobekuntzekin" onartzea, talde horiek onetsiko zutela aurrera pausu gaitza eman zelakoan.

Giro honetan sortu zen "Euskara guztiona eta guztiontzat" kanpaina, zonifikazioaren kontra eta nafar guztien eskubi-deak bermatuko zituen legearen alde, Nafarroan euskara ofiziala aldarrikatuz.

*«Vascuencearen
Legea ez da erizpide
territorialean oinarrituta,
ez eta erizpide
pertsonaletan.
Gaztelera bakarrik
da Hizkuntza Ofiziala
Nafarroa osoan.»*

Eta Parlamentuan ordurarte euskararen etsaitzat jotzen genituenak, gaurko Legea onartu zuten aurreproiektu hura pixkat aldatuz, baina beren nahia erdietsi gabe, euskara guztiona eta guztiontzat aldarrikatzen zuten horien onespenean gabe, alegia.

Legearen erredakzioa zela eta, eztabaida bitxiak izan ziren, gaztelaniaz preposizio hau edo bestea erabili behar zen eta gisakoak, Legearen izenak berak ere zer esanik sortu zuen, ondorioz "Ley del euskara" baztertu eta "Del Vascuence" eman ziguten, euskarari gaztelera zaharrak eta espainol modernoak vascuence edo vasco deitzen diotela eta, euskararen babeserako omen zen Legea euskaldunen eta euskararen ikuspegitik egin beharrean, erdararen logika erabiliz.

Eta honatx hemen Vascuencearen Legea:

-Ez da erizpide territorialean oinarrituta, ez eta erizpide pertsonaletan ere. -Nafarroa berezia da; munduan ez da

beste horrelakorik-

-Normalizazioa ez du helburutzat.

-Gaztelera eta euskara hizkuntza berekiak izanik ere, gaztelera bakarrik da Hizkuntza Ofiziala Nafarroa osoan.

-Hiru eremu edo Eskualdetan zatitzen du Nafarroa Garaia geurez ditugun eskubideak horietako bakar batean onartuz. Honako hauek dira hiru eskualdeak: Euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna.

Eskualde euskaldunean biztanleen % 11 inguru besterik ez da bizi. Mistoan % 54 eta ez-euskaldunean %35a. Eta gainera eskualde euskaldunekoek hainbat eta hainbat zerbitzutarako eskualde mistora jo behar izaten dute, beren eskualdean ez dutelako. Hala nola, entzutegi-epaitegitara, Gobernura, Osasunbideko gehienexkotara, Unibertsitatera... Komunikabide gehienek ere Iruñerrian, eskualde mistoan daude. Garraio zerbitzuak Iruñearekin lotuta daude eta irakaskuntza edo komertzioa dela eta jendea hiriburura etortzen da. Eta Lurralde mistoan euskara ez da ofiziala.

Legea erizpide pertsonaletan oinarritzen ez denez, "Euskalduna-mistoa" muga igarotzen duen zona euskaldunekoari ere ez zaio berea duen eskubidea errespetatzen. Francoren garaiko Foru Berriko 192. Legea aurrerakoiagoa zen honetan, nafar

guztiak, zeuden tokian zeudelarik ere, nafartar izateagatik, testamendua euskaraz egiteko zuten eskubidea onartzen baitzuen. Beraz, azkenean eskualde euskaldunean euskara ofiziala dela esatea ia ia gauza testimoniala da, gutxi rendako eta gutxitarako baita erreala edo baliogarria.

-Lege honek bi arlotan besterik ez du arautzen euskararen erabilera, irakaskuntza eta Administrazioan hain zuzen ere. Komunikabide, zerbitzu, lan mundua, kirol eta gainerakoak xokoren batean utzi dituzte.

-Arautzen duen horretan ere Administrazioak ez du inolako erantzunkizunik, dena nahi edo borondatearen arabera dago. "Dezakete" e.a maiz ageri da, "beharko du" gutxitan.

Erabilpen ofiziala eskualde euskaldunean

Administrazioak nolabaiteko erantzunkizuna eskualde honetan eta irakaskuntzan eta erabilpen ofizialean du, ez beste deustan.

Honelakoak esaten baititu Legeak:

«Eskualde euskaldunean biztanleen % 11 inguru besterik ez da bizi. Mistoan % 54 eta ez-euskaldunean % 35a. Eskualde euskaldunean euskara ofiziala dela esatea ia ia gauza testimoniala da, gutxi rendako eta gutxitarako baita baliogarria»

«Lege honek bi arlotan besterik ez du arautzen euskararen erabilera: irakaskuntza eta Administrazioa. Arautzen duen horretan ere Administrazioak ez du inolako erantzunkizunik, dena nahi edo borondatearen arabera dago. "Dezakete" e.a maiz ageri da, "beharko du" gutxitan»

«Gobernuak berak ez du bere Legea betetzen eta ez da Gobernua Auzitara eraman, ez da Gobernuaren erabakirik inpugnatu ere. Udalek hartu erabakiak ordea, behin baino gehiagotan, inpugnatu egin dituzte»

«Legeak ez du esaten OHOean ikastetxe publiko euskaldunik izan dezakegunik eskualde mistoan, baina baditugu. Ez du esaten BBBn euskal lerrorik jar daitekeenik, baina badira. Hori ordea ez da Administrazioaren nahi edo borondatez erdietsi, herritarren ekimenari esker baizik. Beraz legez gain zereginik badugu»

"Hiritar guztiek, Administrazio publikoekiko harremanetan euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute..."

Administrazio Publikoek eta izaera publikoko enpresek, eskualde euskaldunearan lan egiten duen langilegoaren euskara erabiltzeko gaikuntza progresiboa sustatuko dute.

Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean".

Zazpi urte pasatu dira eta...

Joan den urteko hemeroteca begiratzen badugu behin eta berriz eskualde euskalduneko alkateen eta herritarren protesta eta salaketan berri ematen zaigu. "Honako eta halako tokitan mediku erdaldunak izendatu dituzte". "Administrazioaren oinarriko zerbitzuetan biztanleek espainieraz mintzatzera bultzatzen dituzte edo itzultzailetaz baliatzera". Erdaraz ari baitira albaitari, mediku, erizain, hezlari, ITGko teknikari suhiltzaile eta beste asko euskaraz ez dakitela eta. Zerbitzu bakar batean ere ez dugu ordea, gaztelera ez dakienik inon.

Gobernuak berak ez duela bere Legea betetzen eta ez da Gobernua Auzitara eraman, ez da Gobernuaren erabakirik inpugnatu ere, Udalek hartu erabakiak ordea, behin baino gehiagotan, inpugnatu egin dituzte. Estatuko Abokatuak Goizuetako Udalak euskara hutsez funtzionatzeko akordioa Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenera eraman zuen. Irurtzongo Udalean bertako zenbait talde politikok administratibo laguntzaile kontratazioan euskara jakitea ez baloratzea erabaki zuten, baina Estatuko Abokatuak ez zen kezkatu.

Legeak gutxitan behartzen du Administrazioa, baina gutxi hori ere ez da betetzen eta horrek ez du batere kezkatzen. Ez dut uste 1986az geroztik, aurretik baino askoz mediku euskaldun gehiago dagoenik.

Legeaz landa aurrera pausurik ez ote dugu eman?

Legeak ez du esaten OHOean ikastetxe publiko euskaldun izan dezakegunik eskualde mistoan, baina baditugu. Ez du esaten BBBn euskal lerrorik jar daitekeenik, baina badira.

Hori ordea ez da Administrazioaren nahi edo borondatez erdietsi, herritarren ekimen eta burrukari esker baizik. Beraz legez gain zereginik badugu.

Administrazioaren borondate eza edo eskaxa eta euskal-

zale askoren lana eta nahia nabarmen izan da urte hauetan, aurretik izan zen era berean. Tira-birak ere ugari. Eta...

Hauteskundeak iritsi dira. Aldaketa beharra.

Udaberrian liliak edo udazkenean onttoak bezalaxe plaza-ratu zaizkigu alderdien aginduak. Halere euskara ez zaigu agertzen UPN edo PSOE bezalako alderdien programetan, euskara badenik ere ez genezake atzeman. Bozketa ondorengo emaitzak ez dira ordea, nahi eta uste bezain onak ez bata ez bestearentzat, bakarka gehiengo absolutorik ez dute Nafarroako Parlamentuan. UPNk du gehiengo sinplea, beraz, PSOEek Gobernu buru izaten jarraitu nahi badu beste alderdiak bildu behar ditu, nahita nahiezkoa du HBren laguntza, EAekin ez du aski. UPNk ez du inoren laguntzarik behar. PSOEek kontseilari bat emanen dio EAri, eta honen botoa ziurtatu du.

Orain bai, orain euskara baliogarria da, HBren botoak eskuratzeko euskara erabiliko du, deus emateko prest ez badago ere, agintzea erraxa da eta hortxe agertzen da lehenbiziko aldiz Vasconcearen Legea aldatzeko beharra. PSOE mintzo zaigu honetaz. Berak onetsi, ezarri legea ez da aski. Hori dio, eta aldatzeko nahia azaltzen du. UPN beti bezain antieuskaldun dugu, itxuren beharrik ere ez du. HB ez da politikakerietan sartu eta abstentziora jo du. Urralburu jauna ez da lehendakari izanen.

Gobernu berria martxan dugu. Gobernuaren aldetik ez, baina Parlamentuan legearen aldaketa aldarrikatzen da, Foru Hobekuntzako 9. artikulua bera aldatzea eskatzen da. Gehiengoak ez du hau onartzen, horren ordez Legearen azterketarako batzorde bat izendatzen da. 92ko apirila, maiatza eta ekaina bitartean, batzorde horretara konbidatuak izan ziren bereneritzia eman zezaten, hurrenez hurren, Gobernuko Hizkuntz Politikakoak, eta Euskara Sailekoak, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, BBBko irakasleak, Ikastolen Federazioa, Oinarriak eta helduen euskalduntzeko AEK eta IKA. Bakoitzak berea esan zuen, deitua izan egun horretan eta akabo. Batzordeak talde horiek esandakoa bildu zuen liburuxka batean, baina gero ikusi denez, Legearen aldaketarako proposamena egitean ez dute aintzakotzat hartzen IU-EA-PSOEK.

Ondorio ezberdinak atera zituzten euskalgintzan ari diren taldeen erakarpenetatik, EAk dio:

1.-Taldea horien ustez Legeak muga haundiak dituela normalizazio bidean.

«1992an Legearen azterketarako batzorde bat izendatzen da. Batzorde horretara konbidatuak izan ziren bereneritzia eman zezaten, hurrenez hurren, Gobernuko Hizkuntz Politika eta Euskara Saila, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, BBBko irakasleak, Ikastolen Federazioa, Oinarriak eta helduen euskalduntzeko AEK eta IKA. Legearen aldaketarako proposamena egitean ez ziren iritzi hauek aintzakotzat hartu»

2.-Legea ez duela bete Administrazioak

3.-Irakaskuntzan arazo franko izan dela gurasoek beren haurrentzat euskarazko irakaskuntza hautatu dutenengan.

4.-Administrazioaren indefinizioa erabilpen ofizialari dagokionean.

Eta legearen aldaketa proposatzen du gaurkoak dituen muga eta oztopoak gaindituz eta nafar guztien eskubide linguistikoak ahalbideratuz. Horretarako Ponentzia baten sorrera eskatzen du.

PSOEk berriz, beste ondorio hau atera du batzordean instituzio eta erakunde eta taldeek esandakoaz: Legea, Euskara Nafarroako hizkuntza berekia dela onesteko ezezik, irakaskuntzan eta jendartearen erabilpena berreskuratzeko fun-tsezko elementua izan dela.

Baina 1986az geroztik egoera soziolinguistikoa aldatu dela eta beraz legea aztertzea beharrezkoa dela gaurko egoerara egokitzearen. Eta talde hau ere Ponentzia sortzearen aldekoa da.

HBk dio, Nafarroan euskarak jasaten duen egoeraren normalizazioa xede izanen lukeen ezein proposamen errealistak, ezinbertzez, egun gure hizkuntza arautzen duen markoaren aldaketa ekarriko duela. Eta ildo horretatik Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko legearen 9. artikulua aldaketa eskatzen du, hau baita HBren ustez egun diren oztopo eta eragozpenen gainditzea ahalbideratzen duen bide bakarra. Batzordean parte hartu duen pertsona eta taldeek egindako erakarpenean horixe bera berresten dutela gaineratzen du.

Aldaketa

Ponentzia egin zen, eztabaidek aurrera egin zuten eta azkenik Parlamentuan aurkeztu zen proposamena, EA, IU eta PSOEk egina, honako hau da:

A.-Vascuencearen Legearen 26. artikulua kentzea eta bere ordez 25. artikulua erredakzioa jartzea. Eskualde ez euskaldunerako zion hau kendu: "Euskararen irakaskuntza bul-tzatua izanen da, eta hala behar izanez gero, botere publikoek osoki eta partzialki finantziatua, sustapen eta promozio eriz-pideei jarraiki eta eskarien arabera".

Eta mistorako zion honako hau jarri:

1.-Euskara irakaskuntzan sartzea mailaz maila, gero eta

«Legeak lehengo berean dirau. Zonifikazioa ez da kentzen, euskara ez da ofiziala Nafarroa osoan; lehen baino arlo gehiago ez ditu arautzen, administrazio edo erabilpen ofizialari dagokionean ez du aldaketa bakarra ere sartzen; irakaskuntza besterik ez du ukitzen»

gehiago, eta nahikotasunaz eginen da, ikastetxeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza ereduak sortuz.

2.-Hezkuntz maila ez unibertsitarioetan euskara irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, oinarritzko eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten.

B.-Artikulu berri bat sortzea.

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, beraiei dagozkien eskualde esparrutan, lanbide heziketan eta unibertsitatean euskararen eta euskarazko irakaskuntza bermatzeko beharrezko diren neurriak hartuko dituzte, eskarien arabera.

Hauxek dira proposatutako aldaketak.

Legeak lehengo berean dirau. Zonifikazioa ez da kentzen, euskara ez da ofiziala Nafarroa osoan; lehen baino arlo gehiago ez ditu arautzen, administrazio edo erabilpen ofizialari dagokionean ez du aldaketa bakarra ere sartzen; irakaskuntza besterik ez du ukitzen.

.Gaurko erredakzioak eskualde mistoan ez du garantizatu edo bermatu izan euskarazko irakaskuntza.

.Dekretuz adin bereko, 3 urteko, 20 haur hirietan eta 15 herrietan behar dira nahita nahiez D eredua irekitzeko. Ez da ikastetxe euskaldunetaz ari, eredutaz baizik.

.Gaurko erredakzioak eskualde ez-euskaldunean ez du ukatzen euskarazko irakaskuntzarik, lerroak aipatzen ez baditu ere. Euskararen irakaskuntzaz ari da.

Halere, bai eskualde batean bai bestean, nahiz erredakzio batekin nahiz bestearekin herritarren ekimen eta ahaleginei esker erdiets genezake euskarazko irakaskuntza. Lehen aipatu dut, legeaz landa, aurrera pausoak eman ditugula BBBn eta. Beraz, berealdiko garrantzia du herritarren ekimenak.

.Aldaketa irakaskutzan, OHOn besterik sartzen ez duen proposamen honek, ez du zonifikazioa irakaskuntza berean ere hausten. Hau da, ikasleek ez dute irakaskuntza aukeratuak hizkuntza ofizialean hartzen ahal, eskualde euskaldunean bezala.

Bi eskualde izanen ditugu irakaskuntzari dagokionean, euskalduna eta mistoa. Beraz, bizitokia dela eta nafartarren arteko diskriminazioak berdin berdin jarraitzen du.

Erabilpen ofizialari dagokionean hiru lehen bezala.

«Aldaketa onartzen bada bi eskualde izanen ditugu irakaskuntzari dagokionean, euskalduna eta mistoa. Beraz, bizitokia dela eta nafartarren arteko diskriminazioak berdin berdin jarraitzen du»

«Orain arte, euskal eremuan D eredua jartzeko interesaturik agertu bada Gobernua, ikastolak dauden tokietan izan da»

«Legalizatu gabeko ikastolek diru lagun-tzarik ez dute izanen eta gainera, haur gutxiago izanen dute, zenbait eskolako D eredura joanen delako. Ikastolak itotzeko neurri aproposa»

«Orain dela bizpahiru urte Nafarroako Gobernuak egindako inkesta batean "Nafar guztiek izan behar dute euskara ikasteko aukera" esaldiarekin % 93,5a ados agertu zen»

.Irakaskuntzan BBBz ez dira oroitzen nonbait. LH eta Unibertsitatea aipatzen dira aldaketan baina NUPak eta Gobernuak beren aldetik ikusiko dute zer neurri hartu, beraz ez daude deustara behartuta. Bestetik zer-nola ariko dira UNED, OPUSkoa eta... ?

.Eskualde ez-euskalduneko ikastola gehienak legalizatu gabe daude. Legalizatu bakarrak Zangotza eta Tafallakoa. Gaur egun gainerako ikastolek ere, euskara hutsez ari diren ikastetxeak, diru laguntza ttiki bat hartzen dute Gobernutik, eskualde horretan euskaraz ikasteko beste aukerarik ez dutela eta.

Orain arte, euskal eremuan D eredua jartzeko interesaturik agertu bada Gobernuak, ikastolak dauden tokietan izan da. Ez-euskaldunean ere era berean jokatu duela susmatzekoa da, gainerako herrietan ordea, -UPN dagoela Gobernuan ez ahantzi eta euskara sustatzeko eta indartzeko borondaterik ez duela- ez du deus eginen D eredu hori sartzeko. Beraz, D eredua Biana edo Zangotzan edo... izanen dugu eta zer gertatuko da bertako ikastolekin? Hasteko legalizatu gabeko horiek diru laguntzarik ez dute izanen eta gainera, haur gutxiago izanen dute, zenbait eskolako D eredura joanen delako. Ikastolak itotzeko neurri aproposa.

Ordainez ez-euskalduneko herri gehienetan izanen ote ditugu D ereduak? Hala balitz gaitzerdi ! Sei herritan euskara hutsez ari diren ikastetxe horiek ez baina 25 edo 30 herritan D ereduak izanen genituzke. Zeinek ote pisurik haundiena balantzan?.

Egia da haurrak euskaraz mintzaraztea, euskara hutsez ari den zentro batean ere ez dela erraxa. Erdaraz ari den ikastetxe batean eta ikaslego eta irakaslego gehiengoak erdalduna den batean are zailagoa. Halere euskal lerroak ez dira txarrak.

Egia da eskola beste inguru euskaldunak ez duten haurrak euskalduntzea ez dela erraxa. Halere Administrazio, komunikabide, aise eta kirol mundua, lan mundua e.a. euskalduntzeko neurririk ez badugu ere, haurren irakaskuntza bederen bagenu ez litzatekeela batere txarra.

Egia da, orain dela bizpahiru urte Nafarroako Gobernuak egindako inkesta batean "Nafar guztiek izan behar dute euskara ikasteko aukera" esaldiarekin %93,5a ados agertzen zela, eta "Seme-alaben bat banu ikastolara edo euskarazko eskolara eramanen nuke" esaldiari baietz erantzuten ziola %51,2k.

Halere, oraindik ez da onartzen, ezta proposatzen den aldaketan ere, nafar guztientzat eskualde euskaldunerako proposatzen den erredakzio bera, diskriminazioa gaitzea, zona bakarra egitea.

Irakaskuntza eskualde euskaldunearan

24. artikulua

1.-Ikasle guztiek irakaskuntza hartuko dute, guraso boterea edo tutoretza daukan pertsonak, edo hala badagokio, ikasleak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean.

Noiz artikulua hau Nafarroa Garaia guztian? Eta hori eskolaurretik unibertsitateeraino.

Gaurko aldaketak ordea, ikastolak arriskuan jartzeaz gain, lehen aipatu dut zergatik, D eredua irekitzeko aukera handiegirik ez du ematen, batetik, Erribera aldean herriak koxkorrak izan arren, haur kopurua ttikia delako -hiru urteko 15 edo 20 haur beharko genituzke D eredurako- eta bestetik, jendea sinestarazi nahi zaiolako aldaketa honek D eredua ziurtatzen duela, nahi-izate hutsarekin aski duela. Esan bezala, Gobernuak ez du behartzen eredu horiek jartzera eta ikusi dugu eskualde euskaldunearan zerbaitetara behartuak izanik ere ez duela betetzen.

Nahita nahiezkoa izanen da bada, jendeak burrukan segitzea. Justua den eta eskubidez zor digutenaren alde ahale-gintzea eta behin eta berriz aldarrikatzea.

«Gaurko aldaketak ordea, ikastolak arriskuan jartzeaz gain, D eredua irekitzeko aukera handiegirik ez du ematen, batetik haur kopurua ttikia delako -hiru urteko 15 edo 20 haur beharko genituzke D eredua irekitzeko-, eta bestetik, jendea sinestarazi nahi zaiolako aldaketa honek D eredua ziurtatzen duela, nahi-izate hutsarekin aski duela»

Sagrario Aleman

IKAko (Ikas eta Ari) irakaslea

Teacher of IKA (Ikas eta Ari)